

2021-2022 IKASTURTEA EUSKARA IKASTEKO LAGUNTZAK

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN DIRULAGUNTZA
HELDUEN EUSKALDUNTZEA SUSTATZEKO

XEDEA: A1, A2, B1 eta B2 mailetako ikasleen matrikularen prezioa gutxiagotzea 2021-2022 ikasturtean.

ZENBATEKOA: 85.000 euro banatuko dira:

Aurrez aurreko moduluetan:

- 248-400 orduko moduluak: 90 euro.
- 401-600 orduko moduluak: 125 euro.
- 601 ordu baino gehiagoko moduluak: 250 euro.

Autoikaskuntzako ikastaroetan:

- 190 ordu edo hori baino gehiagoko autoikaskuntza moduluak: 90 euro.

NORENTZAT

- A1, A2, B1 eta B2 mailetan HABEk homologatutako Arabako edo Trebiñuko euskaltegi batean matrikulatzen zaretenontzat (herri administrazioetako langileak ez).
- 2021ean edo lehenago adin nagusikoa denarentzat.
- Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko Barrendegian 2021eko urriaren 1a aurretik erroldaturik zaudetenontzat.

NOLA

Matrikulazioarekin batera, inprimaki orria bete behar da, eta euskaltegiak dagokion deskontua aplikatuko dio matrikulazio prezioari. Eskaera Aldundiari bideratuko zaio, eta Aldundiak eskaerak ebatziko eta jakinaraziko dizkio euskaltegi bakoitzari.

BALDINTZAK

- Eskaera inprimakia euskaltegietan izango da baita, www.araba.eus edota www.euskaraba.eus web guneetan ere.
- Euskararen Foru Zerbitzuak nortasun agiria eta errolda agiriaren kontsultak egingo ditu. Eskaera aurkezteak esan nahi du ofizioz datuak kontsultatzeko baimena ematen dela. Aurka agertuz gero eskatzaileak berak eskaera inprimakian datorren atala bete beharko du berariaz adieraziz aurkakotasuna. Hala balitz, eskaerarekin batera NAN, NIE edo pasaportearen kopia baita 2021eko urriaren 1ekoa baino lehenagoko Arabako edo Trebiñuko barrendegiko errolda agiria ere.
- Euskaltegiak matrikulazio prezioa doitu badio ikasleari, baina suertatzen bada ikasleak hainbat arrazoi direla medio ebazpen-laguntza ez jasotzea, konpromisoa hartzen du doiketaz egindako diru-kopurua euskaltegiari itzultzeko.

ESKAERA: 2021eko irailaren 30era arte.

GALDETU ZURE EUSKALTEGIAN! EMAN IZENA!